

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Belauntza



Aurkibidea

Udalerria: Belauntza

Sarrera



Belauntza Gipuzkoako ekialdean eta Tolosaldeako eskualdean dagoen herria da. 3,4 km² ditu eta honakoak dira herri mugakideak: iparraldean, Berrobi eta Ibarra; hegoaldean, Leaburu eta Gaztelu; mendebaldean, Ibarra; eta, ekialdean, Elduain. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 287
- **Euskaldunak:** %87,64

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **25**
- Transkribatutakoak: **7**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **25**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Gipuzkoako zuhaizti motzak

Hizlariak

Martin Arruabarrena (1897-1993)

Joxe Mari Arruabarrena Otaegi (1925)



Belauntzako Aranguren baserriko seme zaharrena da Joxe Mari. Ondo gogoan du gerra hasi zenean nola sartu ziren soldaduak Gurutze-Zaharretik behera, Santiago egunez. Belauntzan, ordea, ez zen istilu handirik izan. Lanean aritzen zirenek lanean segitu zuten, eta hala egin zuen berak ere. Beti izan du ganadurako afizioa, eta pixka bat koskortu zenetik hona, beti zaindu izan ditu baserriko abereak. Grabazioa egin zitzaionean Tolosan bizi baldin bazen ere, egunero egiten zuen Belauntzara itzulia.

Maria Arruabarrena Otaegi (1927)



Nati Otaegi larrauldarraren eta Martin Arruabarrena belauntzarraren alaba. Belauntzan jaio zen, Aranguren baserrian eta bertan bizi izan da orain arte. Baserritarak zituen gurasoak eta baita bera ere. 4 senidetan bigarrena, zaharrenak baino aukera gehiago izan zuen eskolara joateko. Gutxi hala ere, baserriko lanetan aritu baitzen txiki-txikitatik. Joxe Lopetegi zenarekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten. Bere bizitza osoa baserriari eskaini dio.



Pedro Juan Etxabe Ezeiza

Pedro Juan Etxabe Ezeiza belauntzarra da. Elkarrizketa egin zitzaionean 84 urte zituen.

Ramon Lopetegi Goikoetxea (1941)




Arretxen jaio zen, aitaren jaiotetxean, eta bertan bizi izan zen ondoan Etxaburua eraiki zuen arte. 27 urterekin Maria Teresa Arregi Mendizabal berastegiarrarekin ezkondu eta bertan jarri ziren bizitzen. Bi seme-alaba izan zituzten. Lau senidetan zaharrena izanda, baserriko lana eta eskolako ikasketak uztartu zituen gazte-gaztetatik. Ikasketak amaitzean, Uranga fabrian hasi zen lanean bi urtez. Gerora, Licar lantegian sartu eta 39 urtez aritu zen han lanean. 1976an, Belauntzako alkate izendatu zuten ia halabearrez, baina postu horretan jardun zen 11 urtez; zinegotzi ere izan zen hurrengo urteetan. Belauntzako Gure Txokoa, frontoia, kultur etxea eta ehiza-elkartea sortu zituen bere agintaldian. Metalgintzak jasan zituen garairik txarrenak ere ezagutu zituen, sindikalista izan baitzen. Erretiroa hartu zuenean, erlezaintzarako zaletasuna jorratu zuen. 1000 lore, ezti onenaren txapelketan, txapela jantzi zuen, eta bigarren eta hirugarren postuak ere jasotakoa da.

Karlos Mendiola Aldalur

Karlos Mendiola Aldalur belauntzarra da. Elkarrizketa egin zitzaionean 76 urte zituen.

Elvira Nosellas Rivero (1926)



Artaxoakoa zuen ama, etxekoandrea. Aita, berriz, Berrobikoa, mekanikoa. Aitaren lantegiak etxea jarri zion familiari Belauntzan eta hantxe hazi zen, Tolosan jaio bazen ere. 14 urterekin Belauntzako paper-fabrikan hasi zen lanean eta ezkondukoan Elduko Benta etxera ezkondu zen. Haurdun geratu zenean, fabrikako lanak utzi eta familia aurrera atera zuen. 3 seme-alaba izan zituen. Gauza gutxiarekin oso zoriontsua izan dela dio eta halaxe kontatu dizkigu bere oroitzapenak, pozik.

Bernardo S. S.

Axenxio Zubia Sagardogi (1931)



Artaben jaio zen, amaren jaiotetxean. Maria zuen ama, aita berriz, Lux, urte askoan herriko alkate eta epaile izandakoa. Bederatzi senideko familiko semea, morroi lanetan hasi zen hamar urterekin herriko beste baserri batean. 16 urte zituela, San Jose paper-fabrikan hasi zen lanean eta bertan pasa zituen 44 urte. 30 urterekin, Anuntxia Etxezarreta Regillagarekin ezkondu eta Leaburuko Torrear hartu zuen bizitokia. Lau seme-alaba izan zituen. Pilotarako eta herri kirolerako zaletasuna izan du gaztetatik; besteak beste, Belauntzako festetan harria jasotzen eta Leaburun soka tiratzen aritua da. Azken honetan, kopa altxa zuen tiratzailerik zaharrena zelako.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Belauntzako festak

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BEL-001/022
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:54:55. **Bukatu**: 00:56:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Belauntzako festak Sanjoanetan izaten ziren. Aizkolariak ekartzen zituzten. Festetako lehen bi egunak udalak ordaintzen zituen. Hirugarren eguna gazteek antolatzen zuten.

Transkripzioa

- Urduntxe komerik.
- Ta uain zeoze alaixeo. Zea, nik Belauntza ez det bat'e ezautzen ta.
- Ez?
- Ez. Ta garai haitan festak'e ingo zian ba.
- Hoixe baietz, San Juanetan. Herriko patroia da San Juan ta urtero festak. Uaiñ'e itten die /itteie/, e. Genealmente festatan jartzen du gaiñea uain, edo aizkolari batzuk diela o, badakizu, festa pixkat.
- Lehen nola izaten zan?
- Lehen'e ezautu... gure gazte... ni sasoiko nitzela're aizkolarik-eta ezautu nittun nik.
- Apustuk eta izaten zian festetan?
- Ez, apustuik ez, bestela pesta jartzeko moimentue.
- Ze izaten zian hiru bat egun o hola?
- Bai. Lehendabiziko San Juan egune ta bigarrena herrik itten zittun, ayuntamentuk pagatzen zittun, ttunttunerok eta soiñu-jotzaillia izaten zan, ta haik pagatzen zittun herrik. Ta gero hirugarrena gaztek itten zuen, San Juan hirugarrena. Ta Tolosako festak eta, jende gutxi ta, bastante pobre geatzen zan, ta gero pensatu zuen gaztek, gure ondoren e, gure seme-alaba zaharrenan garaitsun eo, gazte festa ittea San Juan hirugarrenan partez. Ta aurreneko urte mordo baten ikeragarritzko munduk etortzen zien, [...] beheraiño kotxez beteta ta. Ta gero pixkana-pixkana-pixkana, sua itzaltzen dan bezelaxe, bukatu in zan.
- Uain ez da iten gazte festa?
- Uain ez aspalditxoko urtetan. Gaztek'e bi bandata-eo jarri zien ta...
- Bai, lehen esan dezu, bai.
- Bai.

1.2. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BEL-001/026
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:02:44. **Bukatu:** 01:04:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Jolasean neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren gehienetan. Pilotan mutilak bakarrik eta sokasaltoan, berriz, neskak.

Transkripzioa

- Ta ni, nik imaginatzen det /imaginatzet/ ordun, neskak alde batetik, mutillak bestetik. Jolasian batea ta ibiliko ziñaten?
- Bai, bai danak. Gordeketan ta kristoa ta.... Mutillak beti trabiesoxo,

neskak, gaxok, beti..., emakumea, esaera dan bezela arbola bajuxogoa baita beti.

-Bai?

-Bai. Nik hala usten det /ustet/ behintzat.

-Ta ze, ze iten zeniyen ba, ze bihurrikeri?

-Bihurrikeri, gordeketan hasten giñen ta, ba tranpa in o, mutille lotsagabexogoa o trabiesogoa da ta.

-Baiño batea ibiltzen ziñaten?

-Bai, bai. Ta...

-Ze jolas normalian?

-Uaindik're gu alkarrekin ibiltzen giñenen tokin tokin emakumek, ezkondata [...] etxian familik hazi ta zahartu ta. Gure auzo auzokok Legorretan bi badare, geoxo bi alargun ta holaxe asko. Homen tolosarra, bestean e, eradeko bat bado, Andreseko Karmen. Ubarreko Anextexita, Kaxilda ta, hoik Alegiko kontuk.

-Ta gordeketan ibiltzian aparte, ibiltziaz aparte, zertan ibiltzen ziñaten?

-Nik ze esango dizut /esangoizut/ ba, batzutan korrika apustu in ta, bestetan pelotan pixkat eta.

-Pelotan'e neska mutillak?

-Ez, genealen mutilla mutillakin pelotan. Neskak, pelota ta hoik, bestela, haik been jolasak, sok-salton ta, bakoitzak... garaien garaiko gauzek. Uan ez dakau bat'e holakoik. Uain kieto parau esan leike.

1.3. "Uztarri ezkontzak"

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BEL-001/029
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:05:55. **Bukatu:** 01:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Joxe Mari gaztea zenean, bazen inguruan bikoteak osatzen ibiltzen zen gizon bat. "Uztarri ezkontza" esaten zitzaion horri. Beasainen ere bazen horrelako gizon bat. Neskazahar eta mutilzahar geratzen zirenak ere baziren.

Transkripzioa

-Garai hartan izaten zien, nik gogoan det, gu gaztek giñela Belauntzan bazan gizon bat eradekoa gu, beno gure alden zaharra, ezkontzak itten ibiltzen zana, [...] samarra zan gizajoa ta, ez zan lotsatzen ta, juntatzen zittun, ta ni, bastante matrimonio hola, Egoarre esaten zitzaion, Joxe Angel zun izena ta harek bastante ezkontza bazittun hola iñek.

-Beak aukeatuta?

-Ez, neska hari esan, "bono halako mutille, andria falta du ta harekin ezkonduko al ziñeke o ez ta" bik juntatuazi ta uzatarri-ezkontza esaten zitzaon garai hartan, ta garai hartan bastante izaten zian holakok.

-Ta gizon hua, Egoarre hoi, ze interes zun ba, ze irabazten zun horrekin?

-A! Beak jakingou, zerbaitten irabazie izaten zuen hoik.

-Bai e?

-Bai, ze, harek eskatuko zien, bueno ezkontza itten ta ezkondata, beak gonbidatu zeak'e bai ta. Nik ez dakit baiño garai haitan, hogei duro o

berrogei o. Zeatik ibiltzen zala usten dezu /ustezu/ hue. Beste bat ezautu nun nik, hue're eradekoa zan, Beasaiñen, hola ezkontzak itten zittuna, Korta esaten zien, gizon-zahar bat. Ta gogoan det harena, Izaskungo Zumartatxen, emakumea, Rafaela zan izena ta ia eradea aurea zijoan, ta gizona falta zan etxen, ta Korta harek billatu zion, ta beasaindar bat, Miel, tuertua zan gizajua ta, hue ekarri eta nolabaitt'e uztarri-ezkontza in zuen ta.

-Ta ondo ikusiya zeon hoi?

-Ondo ikusi jendek, falta zunak falta zun nunbaittetik.

-Baiño esaten zan, "hoiyek, hoiyek uztarri-ezkontzakok dia hoiyek...", esaten al zan?

-Hala're ez zien ba apartatzen, nolabaitt'e aguantatzen zuen.

-Hoixe [...]

-Ta uain been gustua in ta uain apartatu, hoi nola da?

-Aguantatzeko kapazidade gutxi.

-Hoi zerbaitt'e izangoa, gaiñeakon ezta posible.

-Ta, e, neska-zahar ta mutil-zahar geatziai bildurra zitzaion ordun?

-Nik hala izango nion, ezkondu nitzen behintzat eta.

-[...] parra iten zitzaion?

-Bueno baiño, neska-zaharrak eta mutil-zaharrak oso ondo bizittutakok baie, ta oso gaizki're bai, ta ezkonduk'e "por el estilo", batzuk oso ondo ta bestek oso gaizki, hor, bire hortan ez dao sartzeik iñoa.

-[...]

1.4. Ezkontza, arreo eta bidaia

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BEL-001/031
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 01:11:13. **Bukatu**: 01:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontzerakoan emakumeak arreo ekartzen zuen, eta logela on bat ere bai. Logelako altzariak idi gainean eramaten zituzten baserrira. Ezkonberritan bidaia egiteko asmoa zuten arren, elurte batek plana bertan behera utziazien.

Transkripzioa

-Ta ezkontza bea arreuakin ta hola in zenuen?

-Bai, urun garai haitan hala usatzen zan, arreo esaten zan, ta kuarto on bat ekartzen zun genealmente neskak zetorren basarrira, ta arten karreteraik ez zan izaten ta hirikin gurdin iyotzen zan.

-Ta ze eaman zenun?

-Ta nik bi ohi ta armaiok eta kuarto jator bat, genealmente, ta geo badakizu /bakizu/ garai hartako usariok zien, ze, dozenaka maindere ta mantak eta, ta, bestea ta, garaiei garaiko gauzek.

-Bai, ta biarra're in zenuen?

-Bai, hartan'e kaso raru izan gendun guk. Krixton elurre zan, ta urdun etxen bazkarie izaten zan, jendea bildu ta uain restaurantek ta kristok dia, baiño garai hartako usariok basarritan bertan itten zien, ta hala basarrin in gendun. Ta Bilbaoa juteko idea gendun, e zea ittea ta, hala Donostia gaueako Donostia, han lehengusu batzuk eta haik, Kojoanea o Juanitonea o

nola han, ba hara haik estazioa ateata eongo ziela ta, guk ez giñikin Donostiko berri garai haitan. Han gaue pasa gendun ta hurrungo goizeako billetek hartu ta haik in zittuen, ta hurrungo goizen ikeagarritzko elurra in zun gauen, ta trenak eta ez zeola ba, Zauzko tren hoi ta, zean ta billetek bueltatu in zizkiguen estazion ta salidaik pe. Ta esan gendun, osteunen ezkondu giñen, ta esan gendun, “uain unuzkeo bat ez”, ta donostin bertan pasa geiñiztun astelehen arte ta astelehenen etxea. Gure komerie hoixe izan zan dana.

-Ta hurrengo egunen lanea?

-A bai, beharko, beinga!

-Andria zer zenun baserrikoa, baserritarra?

-Bai, bai. Ni bezelaxe [...] Donostin. Nere bi arrebak ´e baserrita, holaxe baserrita. Bata hantte auzoan bertan, zaharrena, ta bigarrena Errenterin, Astiarrako benta jakingo zu zuk, hantte bizi da baserrin.

-Joe...

-Zu harrittu eingo zea baina hoik holan die.

-Ze kontu e...

-Bai.

2. Aisia

2.1. Musika Belauntzako festetan; festa goiz bukatzen zen garai haletan

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BEL-001/023
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:56:49. **Bukatu**: 01:00:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Iritziak
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Urte askotan soinua jotzera Ramuntxo esaten ziotena etortzen zen Belauntzako festetara. Ttunttuna jotzera, berriz, Lizartzako bi anai. Joxe Mari ez zen dantzan ibiltzen. Apaizak plazan errezatu ondoren, etxera erretiratzen ziren neskak. Mutilak udaletxean parranda jarraitzen zuten. Orain, berriz, oso berandu arte ibiltzen dira gazteak parrandan. Lehengoa eta oraingoaren artean tarteko bidea litzateke hoberena.

Transkripzioa

- Ta garai hartan, ordun, onena, festetako onena, ze? erromeiya o soiñujotzaillia.

- Soiñuk eta zea, garaian garaikua.

- Ze soiñu jotzaille etortzen zan ba?

- Urte askon behintzat Ramuntxo esaten ziena, Tolosarra zan, piano-soiñua jotzen zuna. Hua urte askon ezautu nun nik gure gazte denboran. Ta ttunttunerok, berriz, lizartzatarrak´e bai, basarritarrak zian, gaiñea, bi anai, Lizartzako basarri Zakarkok. Bai. Gero Estanis, oso bromosoa zan, danborra jotzen zuna. Ta hue gero Belauntzan bukatu zan, gaiñea, Beotibarko fabrikako enkargatu eon zan. Ta harek esaten zun: “Bai, garai hartan erdi gosek ibiltzen nitzan ta festaa Belauntza etorri ta nahiko oillasko jaten

giñin behintzat”.

- Bai?

- Ta holaxe.

- Ta zuek dantzan ibiltzen ziñaten?

- Ni ez, ni makala izan naiz hortako.

- Ezta bat’e.

- Ez.

- Beira bai, ordia.

- Bua, beida, hoi normala.

- Taberna-o izaten zan?

- Taberna, bai. Ta gero gauen, garai hartan usariok hala zien ta, apaiza Don Eduardo gendun garai hartan, urte askon eon zana, ta “danga-danga” aimarie jotzen zun. Aimarie izaten zan illun bixte o illuntzeko zean. Ta plazaa etortzen zan, ta angelusa errezatu danak, eta, beno, neskak “ttur-ttur-ttur” makillazua hartutako txakurrak bezela, etxea. Ez uain bezela goizen euna argittuta ta.

- Zuek bai, ordia.

- Gu aiuntamentun-ko salan biltzen giñen ta han juerga pixkat itten gendun.

- Baiño neska lagundu ta gero, o?

- Ba! neska laguntzea nola ba? pekatue zan dana garai hartan ta.

- Ez al zizuen uzten neska laguntzen?

- E, utzi bai, baiña nik broman esan det. Pekatue pekatun gaiñen ta... Uain “viva la libertad!” Lanbat gauetan, [hemen], hau plaza Gorriti da plaza kokkor hau, ta hor etxe hortan hoi herriko etxea o zea, taberna legen bat bado, ta [hemen] bat’e esajeratu be izango die —lanbat batzutan e, beti ez baiño— milla igual. Loik itten ez digue uzten. [Hemen]. Ta dana gaxtea, hogei urtetiken dozena bat urte bitartekuak danak.

- Plazan bertan?

- [Hemen ibiltzen die]. Builla atea ta. Ni iñoiz hor kuartotiken goizeko ordubata alden o [pixkat letu] ta pixa in ta beidatu kurtina altxata ta dana ume jendea hor, istillue ta zalaparta.

- Aimarik jo ber haiei’e.

- Haik aimaritan juteko earrak zerek!

- Ta zu hemen...

- Ta goizen bostak alden eo hor ya argia itzaltzen dan bezala ordun bukatzen [dittue].

- Lehenoz ez zan holakoik.

- Bu! bono, nik esan behar banu, bi gauze: lehengo hue’re gehiyegizko abusoa, ta oaingoa’re bai. Hor erdin beste bide bat behar luke. E?

- Eongo da berez.

- Eongo da, baiño hutsik eongo da, seguru asko.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Kongregazioak

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BEL-001/025
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:01:39. **Bukatu**: 01:02:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Mutilak San Luis kongregaziokoak izaten ziren. Neskak, berriz, Mariaren alabak. Gustura joaten ziren, ohitura polita zen eta. Ezkonduak beste kongregazio bateko kide izaten ziren.

Transkripzioa

-Lehen neskak erretza, Jesus! Kartzelan'e sartuko zuen seguru asko.
-Kongregaziok?
-Emakumek. Kongregaziotik? Bota igual deskuidatu ezkeo.
-Zuek ibili zate oraten'e kongregaziotan.
-Bai. Ordun, ba, jun bihar izaten zan. San Luiskoa, gu mutillek San Luiskoa ta neskak Marian alaba kongregazioa. Hiru izaten zien: lendabiziko hillen, lendabiziko iganden Marian alabak; hillen bigarren iganden San Luiskok, mutillak; ta hirugarrenen apostolaukok, ezkonduk. Usariyu hoik danak gure gazte denboan bazien.
-Ta [...] juten ziñaten
-Bai. Ba, hala ez bagiñan'e guk santun papera itten gendun.
-Ta gustoa juten ziñaten horta o?
-E?
-Gustoa juten ziñaten, kongregazioko egunen ze izaten zan
-Bai, usarioa hoixe zan ta, zeatik ez ba
-Meza bat baiño, normala baiño hobexagua o?
-Ba, halako difentzi pixka bat, zeozter iruittu ote zan eo

4. Iritziak

4.1. Nobia bilatzeko modua

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Otaegi, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BEL-001/027
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:04:29. **Bukatu:** 01:05:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Iritziak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Nobia bilatzeko modua sinplea zen: gustatzen zitzaizen neskari etxerako bidean lagunduta hasten ziren. Gaur egun gauzak asko aldatu dira gai horietan.

Transkripzioa

-Hoi jolasian, ta gero, nik pentsatzen det /pentsatzet/, lehen oain bezela diskotekaik eta tabernatan neskak ez eta holako gauzik ezta?
-Ez, ez.
-Ordun nobiyua ta nobiya nola, nola billatzen zan, o bakarrik etortzen zan o nola izaten zan
-Bono, hoi genealmente, festatik festatik etxeakon laundu neskai ta, gustatzen bazan hari seittu ta, gero hasi ta, gu hala izan giñen, bestek eztakit nola izaten dien /izateien/, ta beste asko berriz mutil-zahar ta neska-zahar geldittu ta, geo penatan igual batzuk, ezkonduakok'e

penatan bai majiña bat ta, mundue holaxe da dana, ez al da egie?
-Bai halaxe da, [...]
-Ba oain, oain hoi baiño serioa topatzen det /topatzet/ nik e. Ezkondu ta beste batzuk arrimatu ta dana dala ta, urte bat eo bi iñ, ume bat o bi're bai, ta gero separatu, hoi pobrea dek /pobreak/ ba, e?Baiño oso modan jarria e!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Lutoa aitonaren heriotzaren ondoren (BEL-001/002)

Joxe Mari txikia zenean lutoa gauza sakratua zen. Aitona hil zenean arropa berezia jarri zioten. Elizan egiten ziren hainbat ospakizun gogoratzen ditu.

2. Ganadua eta egurra zituzten ogibide (BEL-001/003)

Baserrian, ganadua zeukaten. Behiek esne gutxi ematen zuten. Txekorrak hazten zituzten. Gero, lanerako idiak erosi zituzten. Belauntzan, pagadiak zeuden eta hango egurra okindegietara saltzen zuten.

3. Belauntzatik Tolosara oinez (BEL-001/004)

Egurra oinez eramaten zuten Tolosaraino gurdi gainean. Garai haietan errepiderik ez zegoen; gerora egin zituen Gipuzkoako Diputazioak.

4. Esnea etxez etxe saltzen zuten (BEL-001/005)

Amona esnea saltzera joaten zen. Behiak esnetako izaten zituzten. Esnea etxez etxe partitzen zuten. Gerora andreak gidabaimena atera zuen, eta kotxez joaten zen.

5. Txerria etxean hiltzen zuten (BEL-001/007)

Txerriren bat edukitzen zuten etxean. Neguan hiltzen zuten eta etxean jaten zuten. Joxe Mariren aitak txerria hiltzen zuen, baina berak ez. Familia handitu zenean, dena behar izaten zuten guztiak mantentzeko.

6. Baserrian ez zuten goserik pasa, baina kalean miseria zegoen (BEL-001/008)

Babarrun eta talo asko jaten zuten. Artoa eta babarruna asko egiten zuten. Orain asko kexatzen gara, baina garai haietan miseria gehiago zegoen. Baserrian ez zuten goserik pasa; baina, urte haietan, kalean miseria asko zegoen. Etxean ardirik ez zuten, eta Tolosan erosten zituzten.

7. Ermandadeak aseguru moduan funtzionatzen zuen (BEL-001/009)

Ermandadean herriko gehienak egoten ziren. Elkarri laguntza eskaintzen zioten. Belauntzan bi ermandade egon ziren. Aseguru baten antzera funtzionatzen zuen.

8. Elkartasuna eta aseguruak (BEL-001/010)

Etxe bat erretzen bazen ingurukoen artean limosna biltzen zen haiei laguntzeko. Horren inguruan tranpak egiten zituztenak ere bazeuden. Gero, Estatuak laguntza horiek debekatu egin zituen. Etxe aseguruak ere baziren garai haietan.

9. Gaztetako lanak (BEL-001/011)

Umetan egiten zituzten lanen artean okerreña itulan ibiltzea izaten zen. Oso lan neketsua izaten zen. Oso gazte zela hasi zen ganaduaz arduratzen.

10. Eskolara eguraldi txarra egiten zuenetan (BEL-001/012)

Eskolara gutxi joaten ziren, eguraldi txarra egiten zuenean. Belauntzako eskola kontzejuan zegoen. Maisua gizon ona zen, baina erdalduna, eta elkar ulertzeko arazoak izaten zituzten. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren, neskak aurrean eserita eta mutilak atzean. Idazten, irakurtzen eta lau eragiketak ikasten zituzten.

11. Soldadu Nafarroan (BEL-001/013)

Erdaraz soldaduskan ikasi zuten. Makien garaia zen. Nafarroan ibili zen, Burgete eta Espinal inguruan. Garai haietako gorabeherak gogoan ditu. Frantziara batek baino gehiagok ihes egin zuten egun haietan. Gero, Elizondon ibili zen. Familiak postaz zenbait gauza bidaltzen zizkion, txokolatea, gazta eta horrelakoak.

12. Euskaraz hitz egitea debekatu zioten soldadu zebilenean (BEL-001/014)

Nafarroako hizkera desberdina zen. Soldadu garaian bizkaitarrak ere ezagutu zituzten, eta haien hizkera ere desberdina zen. Sarjentu batzuk euskaraz hitz egitea debekatu zuten.

13. Gerra hasiera Belauntzan (BEL-001/015)

11 urte zituen Joxe Marik gerra hasi zenean. Santio egunean sartu ziren Belauntzan. Gogoan ditu egun haietako hainbat xehetasun. Gorriak Izaskun mendian zeuden, eta karlistak, berriz, Belauntzan. Gerrak zortzi egun iraun zuen herrian.

14. Gerrako bandoak; soldaduak Belauntzan (BEL-001/016)

Erreketeek edo txapel gorriek guardia egiten zuten Tolosan. Esaerak zioen "soldaduak amaren ume sobratuak" zirela. Nazionalistek eta karlistek borrokatu zuten hasieran. Soldaduak Belauntzako baserri batean egon ziren. Bertan istripu bat nola gertatu zen kontatzen du. Tiroak zirenean, baserrian babesten ziren.

15. Gernikako bonbardaketaren inguruko Baserriren bertsoak gustatzen zaizkio (BEL-001/017)

Tolosan gerra azkar pasa zen. Komandante bat hil zutela gogoratzen du. Gernikako bonbardaketa oso gogora izan zen. Baserriren bertso batzuek, Lizasok primeran abesten dituenak, ongi deskribatzen dituzte egun haiek.

16. Gerra garaiko gazteak ez ziren oraingoak bezalakoak (BEL-001/019)

Hainbat kinto deitu zituzten gerrara. Garai haietako gazteek esandakoa egiten zuten. Soldadu joan aurretik, herritik atera gabeak ziren. Oraingo jendeak gehiago daki eta determinazio gehiago du.

17. Gerra ondorengo miseria (BEL-001/020)

Gerra ondoren miseria handia egon zen. Errazionamenduaren garaiak gogoratzen ditu. Hala ere, goserik ez zuten pasa.

18. Estraperloa gerra ondoren (BEL-001/021)

Gauetz Aresoko errotara joaten ziren. Belauntzan ere bazen errota eta kontrabandoan ibiltzen ziren. Karga bizkar gainean zeramatela ibiltzen ziren estraperloan. Frantziarako bidean ibiltzen zirenak ere ba omen zeuden.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com